

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Carolina Bikondoa Elizegi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea



Biografia



Aita donostiarra zuen, eta ama Hernialdekoa. Hantxe jaio zen, udaletxean, aita gerran zebilelako eta ama hara joana zelako erditzera. Bi urte inguru zituenean bueltatu ziren Donostiara; lehenengo Autonomia kalean bizi izan ziren, amonarekin, eta ondoren Mirakruz gainean. Bi senide dira. Sei urte zituela ama hil zitzairen, eta izeba beraiekin bizi izan zen, aita berriro ezkondu zen arte. Hiru tokitan ibili zen eskolan, gehienbat mojekin, eta etxeko kargu egitea egokitu zitzaion gero. Aita soinu jotzailea zuen. Mendiola baserri-sagardotegira ezkondu zen, Uliamendira. Jende asko joaten zen hara igande pasa, udan; duela hamarkada bat itxi zuten.

Zintak

DON-069

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-04
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hernialden jaioa

- **Erref:** DON-069/001
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1938an jaio zen, Hernialden, gerra betean. Udaletxea, eskola, kartzela, taberna, ikuilua, perratzailea eta beste zenbait zeuden etxean jaio zen, "Casa Consistorial" izendatzen zuten etxean. Handik pare bat urtera Donostiara etorri zen bizitzera.

2. Parada Txiki izeneko etxean

- **Erref:** DON-069/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxe txikian bizi ziren, bizitza bakarrekoa, kanpoan baino hotz gehiago egiten omen zuen etxean. "Parada txiki" izena zuen etxeak. Hiru senidetatik bat gazterik hil zen eta anai-arreba bi geratu ziren. Sei urte ez zituela, ama hil zitzaion eta haren ahizpa bat geratu zen beraiekin. Aita ere ordurako gerratik etorria zen etxera.

3. Mirakruz gaina, lehen eta orain antzera

- **Erref:** DON-069/003
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Mirakruz gaina ez da gehiegi aldatu bere ume garaitik. "Alto de Vinagres" esaten zioten orduan auzoari. Bi denda zeuden, farmazia bat ere bai. Txiskoene eta Arzak tabernak zeuden.

4. Mirakruz gaineko lantegiak

- **Erref:** DON-069/004
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

"Contadores" izeneko lantegia zegoen auzoan. Jende asko aritzen zen bertan. "Coches Villar" ere bazen, umeen gurditxoak eta egiten zituzten lantegia. Mezetara Herrerara joaten ziren, hango eliza bota zuten arte; gero Mirakruzera bertara.

5. Maistra gogorak

- **Erref:** DON-069/006
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bera eskolan zela, Herreran, tranbia zintzilik geratu zela gogoratzen du. Maistrak behin etxeko lanak ondo egitearren makilarekin jo zuela ez dauka ahazteko. Maistra batek eskola ematen zien eta besteak josten erakusten zien.

6. Aberatsak eta pobreak bereizita eskolan

- **Erref:** DON-069/007
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ezin izaten zuten euskaraz egin eskolan. Dena erderaz egiten zen. Liburu bakarra zuten, entziklopedia, eta gai denak bertan agertzen ziren. "La Asuncion"en aberatsak eta pobreak bereizita izaten ziren gela banatan.

7. Etxeko ardura gaztetatik

- **Erref:** DON-069/008
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Jolas askorik ez zuen egin haurtzaroan, etxean lagundu beharra izaten zuelako. Hamaika urte zituela, aita berriz ezkondu zen. Ama berria biriketarik gaixo zegoen eta bera arduratu zen etxeaz hamalau urterekin eskola bukatu zuenean.

8. "El Elefante" komuneko papera

- **Erref:** DON-069/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Etxean ez zeukaten baratzerik eta abererik, pisu bat zen beraiena. Etxeko

lanez bera arduratzen zen. Arropak fregaderan garbitzen ziren. Komunik ez zegoen eta galdara batera egiten zuten dena. Komuneko paperaren ordezt egunkaria erabiltzen zuten. Gero komuneko paper sendo bat saltzen zen, oso zakarra, "elefante" izenekoa.</p>

9. Gurelesa esnea

- **Erref:** DON-069/013
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:30:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Lekaleak jaten zituzten gehiena. Errazionamendua gogoan du; poltsa hutsa bueltan eramaten zuten berriz. Azukrea eta olioia neurrira erosten zen. Gurelesa esnea saltzen zuten dendan.

10. Mirakruzeko festak

- **Erref:** DON-069/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Festak plazan izaten ziren. Musika, herri-kirolak, bizikletan zintekin lasterketak... Neskek prestatzen zituzten zintak eta sobreak eta mutilek egiten zuten bizikletan. Anekdotak bat kontatzen du.

11. Aita eta anaia soinu-joleak

- **Erref:** DON-069/015
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:33:06. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Arzakenean ezkontzak izaten ziren igandetan eta aita joaten zen soinua jotzera. Anaia ere musikazalea zen eta kontserbatorioan aritzen zen, soinu orkestrako zuzendari. Katedratikoa zen. Irakaslea izaten zuen anaiak etxean soinua jotzen ikasteko. Munduko txapelduna ere izan zen anaia.

12. Dantzazalea

- **Erref:** DON-069/016

- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Inguruko jaietara joaten geroago hasi zen, gaztetan. Intxaurrondora, Herrerara, Trintxerpera... oinez joaten ziren. Dantzazalea zen. Hernialden asko egiten zuten, sueltoan. Marmitatik antosina urez bete eta horrela edaten zuen ura, izerdi betean.

13. Etxeko ardura beregain

- **Erref:** DON-069/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:46:48. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxetik kanpora ez du lanik egin, nahikoa zuen etxekoarekin. Aita eta anaia txukun joan behar izaten ziren soinua jotzera eta berak plantxatzen zizkien arropak. Aitak "Coches Villar"ren ere egiten zuen lan. Haurrentzat jostailuak ere egiten zituzten.

14. Aita margolari

- **Erref:** DON-069/021
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:49:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Margolaria izan zen aita. Margoak beraiek egiten zituzten, lurrarekin eta beste hainbat materialekin nahastuta. Ordizian egiten zuen lan margolari eta bitartean taberna ere bazeukan han.

15. Arropak garbitzera arrocketara

- **Erref:** DON-069/023
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:51:36. **Bukatu:** 00:53:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Arropak garbitzera arroketara joaten ziren astoarekin jaitsita. "La Paz"en bi baserri eta beste hiru edo lau etxe zeuden, besterik ez.</p>

16. Sagardotegia etxean

- **Erref:** DON-069/025
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:55:14. **Bukatu:** 00:58:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa bertan egiten zuten. Eguraldi onarekin jende asko joaten zen, txarrarekin inor ez. Denetariko sagarrak erabiltzen ziren sagardotarako. Botilatan sartzen zituzten eta halaxe saldu ere bai. Jaten ere ematen zuten.

17. Apaizaren sermoiak, lo hartzeko modukoak

- **Erref:** DON-069/032
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:09:22. **Bukatu:** 01:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Irratia beti ezagutu du; handia zen eta kolperen bat eman behar izaten zioten pizteko. Mariaren Alabak kongregaziokoa zen. Apaizaren sermoiak lo hartzeko modukoak izaten ziren batzuetan. Umeak Paristik zetoze esaten zuten.

18. Errespetua eta beldurra, bi gauza

- **Erref:** DON-069/033
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:12:11. **Bukatu:** 01:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Errespetuaz iritzia ematen du, denak errespetatu behar direla. Errespetua eta beldurra bi gauza direla ere azpimarratzen du.

19. Mirakruz gaina eta Mendiola, lehen Altza

- **Erref:** DON-069/035
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:16:00. **Bukatu:** 01:16:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Mirakruz gaina eta Mendiola Altza ziren. Herrerara joaten ziren mezetara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com